OIARTZUNGO
UDALA

OIARTZUNGO UDALA
2009 EKA. 02
KONTUHARTZAILETZARA
BIDALIA

453 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko maiatzaren 27an.

2009ko apirilaren 21ean Udal honetako Toki Gobernu Batzordeak Iturriotz auzoko 317- Portugal Txiki herri bide zatia hobetzeko lanak EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L. enpresari behin-behingoz esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluarekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin-betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantza eta zerga betebeharretan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan. Era berean, plegu administratiboen 18. klausulako a), b), c), d), e), f) eta g) puntuetan aipatutako agiriak aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikuluaren 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin-betiko deklaratuko da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espedientea bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean ORSA, S.L. enpresak aurkeztu beharrekoak aurkeztu dituenez, Iturriotz auzoko 317- Portugal Txiki herri bide zatia hobetzeko lanen obra kontratua EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L. enpresari behin-betikoz esleitzea 109.284,40 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 2 hilabeteko egikaritze epearekin.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

OIARTZUNGO UDALA

IDAZKARITZA
OIARTZUNGO UDALA